

TOLOSAKO UDALAREN ETA GURE ZIRKUAREN LAGUNEN ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA.

Tolosako udaletxean, sinadurako datan.

ELKARTURIK

Alde batetik, Goiuri Eceiza Arandia, Tolosako Udaleko Kultura Azpisaileko zinegotzi delegatua, Tolosako Udaleko idazkari Sara Berasategui Fuertesek lagunduta.

Eta bestetik Iker Galartza Larrinaga jauna, 2022ko abenduaren 2an eginiko batzarrean hala ebatzi ostean Gure Zirkua-ren Lagunen Elkarteko izenean, testuaren hizkuntza ulergarritasunaren xede soilarekin, GUZILAELe deituko duguna. Elkar-tearen egoitza sozia-l: Ibaiondo 14 – 20400 Tolosa., IFKa: G75196816. Eusko Jaurlaritzaren Elkar-teen Erregistroan AS/G/21588/2018 zenbakia du.

ESKU HARTZEN DUTE

Lehenengoak, Tolosako Udalaren izenean eta ordezkaritzan, bat etorrit-a Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1718 Alkatetza Dekretuak, 2023ko uz-tailaren 6koak, zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

Bigarrenak GUZILAELe-ren lehendakari gisa 2022ko abenduaren 2ko batzar-rak ala era-baki ostean.

Bi aldeek Hitzarmen hau egiteko behar adinako legezko gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta ondorio horretarako

AZALDU DUTE

I.- GUZILAELe-k, Udal honetan 2025ko martxoaren 26an aurkeztutako idatzian –sarrera erregistroko zenbakia 2025/04045, proiektuen eta jardueren memoria aurkeztu zuela, Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen Diru-laguntzen Ordenantza Orokor-rak xedatutakoarekin bat etorri-z. Memoria honek 51.200 euroko gastu aurrekontua du eta diru sarreretan berriz 45.283 euro.

Tolosako Udalak 4.000,00 barne aurrekontua du, diru-laguntza eskaeraren helburu diren ondorengo jarduerak gauzatu ahal izateko, eta laguntza hori hitzarmen honen bidez emango da.

Azaltzen dute:



TOLOSAKO
UDALA

2025DO200021

- a) Espazio eta instalazioak zein diren
- b) Helburu pedagogikoak
- c) Urtean zeharreko ekimenak
- d) Zirkuaren alderdi soziala: hiru garren adinekoekin eta errefuxiatu talde batekin.
- e) Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako Kulturako Eskolan parte hartzea
- f) Egoitza artistikoak
- g) Tolozirkus jaialdia.
- h) Aparteko jarduerak: hemen sartzen dira bestelako ekimenak antolatu ahal izateko gunearen eskaintza: kontzertuak, antzerki-saioak, monologoak....

Asmoaren helburuak, edukiak eta metodologia ere deskribatzen dira:

- a) Gizarte eta osasun helburuak.
- b) Saioen egitura
- c) Zirku teknikak
- d) Edukiak
- e) Lan metodologia

II.- Entitateak egunean dituela zerga-betebehar guztiak eta egunean dagoela Gizarte Segurantzarekin.

III.- Entitatea ez dagoela 38/2003 Legeak, azaroaren 7koak, Diru-laguntzei buruzkoak, bere 13.artikuluko 2. eta 3. zatietan diru-laguntzak jasotzeko adierazitako debekuausaren baten pean.

IV.- Bere estatutuekin bat etorritik, entitate eskatzailearen xedea bat datorrela hitzarmen honen bidez emango den diru-laguntzaren xede eta helbururekin.

V.- Tolosako Udalaren 2025eko udal aurrekontuan, 0800.481.18.334.10 partida agertzen dela, 4.000,00 euroko zenbatekoarekin, entitate eskatzailearen diru-laguntza izendunaren kontzeptuaren pean.

VI.- 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 25. artikuluan honela dioela: "Udalerriak, bere interesak kudeatzeko eta bere eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduera-mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzake.

Hain zuzen ere, Lege horren 25.2 artikulua, udalen eskumenen artean, eskumen hau jasotzen duela: kultur jardueren eta guneen kudeaketa.

Era berean, 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, bere 17. artikuluan, udalerrien eskumen propioak zeintzuk diren aipatzen ditu, kultura eta kultur-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kultura ekipamenduak kudeatzea tartean.

VII.- Hitzarmen hau ematen dela lege-arau hauen babesean: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 38/2003 Legea, azaroaren 17koa,

Diru-laguntzei buruzko lege orokorra eta 887/2006 Errege Dekretua, azaroaren 21ekoa, hura garatzen duen Erregelamendua onartzen duena; eta Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen Diru-laguntzen Ordenantza Orokorra.

Eta ados daudenez, bi aldeek hitzarmen hau formalizatzen dute, ondoren zehazten diren klausulak ezarriz.

KLAUSULAK

Lehenen: Xedea.

Hitzarmen honen helburua da Tolosako Udalaren eta GUZILAEleren arteko lankidetzarako eremu egonkor bat ezartzea Tolosako udalerrian

Bigarrenen: Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.

Hitzarmen honen eremuan honako jarduera hauek sartzen dira:

- a) Azpiegituren mantenua eta berritzea
- b) Urtean zeharreko ekimenak
- c) Ikastaro trinkoak
- d) Kultura Eskola.
- e) Egoitza Artistikoak
- f) Tolozirkus
- g) Aparteko jarduerak.
- h) Profesionalen gunea

Azpiegituren berritzeari dagokionean, kontuan izan beharko litzateke Tolosako Udalak elkarteari emango dion dirulaguntza gastu arruntak diruz laguntzeko izango dela. Dirulaguntza honek ez ditu inola ere kapital-eragiketarik finantziatuko

Hirugarrenen: Diruz lagundutako jardueren finantzazioa.

Tolosako Udalak hartuko du parte hitzartutako jardueren finantzaketan diru-laguntza baten bidez. 2025eko ekitaldian, aurrekontu-baliabide horiek 4.000,00 eurokoak izango dira, 0800.481.18.334.10 Udal Aurrekontuetako partidaren kargura; dena dela, diruz lagundutako elkarrekin beste Erakunde batzuen diru-laguntzak ere jaso ditzake.

Oro har, pertsona edo entitate onuradunak aurkeztu eta diruz lagundu beharreko proiektu edo jardueraren aurrekontua, edo gerora egindako aldaketak, erreferentziazko izango dira dirulaguntzaren azken zenbatekoa zehazteko, eta zenbateko hori kalkulatzeko egongo da proiektu edo jardueraren azken kostuaren portzentaje moduan. Kasu horretan, Tolosako Udalak egin lezakeen gehiegizko finantziarioa kalkulatzeko, ekarpen horrek kostu osoa portzentajea hartuko da erreferentzia gisa, bat etorrita dirulaguntza erregulatze araudiarekin eta hitzarmenaren baldintzekin. Hala ere, dirulaguntzaren



TOLOSAKO
UDALA

2025DO200021

izaeraren, helburuen edo lortu nahi dituen xede sozialen arabera, ekarpen publikoa izan daiteke zenbateko zehatz bat, kostu osoaren portzentaje edo zati bati erreferentziarik gabea. Kasu honetan, ulertuko da diruz lagundutako jarduera osorik exekutatzeko behar den finantzaketaren diferentzia pertsona edo entitateak jarri beharko duela, eta finantzaketa publikoa, halakorik bada, itzuli egin beharko da jarduera horren kostu osoa gainditzen duen kopuruan.

Diru-laguntza hau bateragarri izango da helburu bereko beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazio edo entitate publiko edo pribatu nazionalatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik datozenak, kalterik egin gabe honekin batera dauden diren beste diru-laguntzak erregulatzeko araudiak horri buruz agindu dezakeenari.

Gerta daitezkeen aldi bereko finantzaketa-kasuak honako baldintza hauek bete beharra daukate:

a) Emandako diru-laguntzaren zenbatekoak ezin du inola ere gainditu, beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako proiektu edo jardueraren kostua.

Muga hori betetzen dela egiaztatzeko, egindako gastu osoa justifikatu behar da eta justifikatzeko kontuak jaso behar du diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste sarrera edo diru-laguntzen zerrenda zehatz bat, zenbatekoak eta beren jatorria adierazita daudela.

b) Finantzazioan soberakin bat gertatuko balitz proiektu edo jardueraren kostuarekiko, onuradunak itzuli egin beharko luke, berandutza-interesekin batera, dagokion justifikazioari ordainketa-gutunak erantsita. Soberakina itzuliko zaie diru-laguntzak eman dituzten entitateei, entitate horietako bakoitzak emandako diru-laguntzen proportzioan.

Hala ere, baldin eta Tolosako udala bada finantzaketa-soberakinaz ohartu dena, exijituko du soberakinaren zenbateko osoa itzultzeko, berak emandako diru-laguntzaren mugaraino.

Diru-laguntzak elkarrekin bateraezinak izateak ez du galaraziko biak eskatzea, bai, ordea, biak batera jasotzea.

Laugarrena: Indarraldia.

Hitzarmen honek 2025ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte izango ditu ondorioak.

Emandako diru-laguntza behar bezala erabili dela justifikatu behar zaio Kultura, Festak eta Gazteria departamentuari, Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen diru-laguntzen Ordenantza Orokorra xedatutakoaren arabera.

Bosgarrena: Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak.

Diru-laguntza jaso dezaketen gastutzat hartzen dira, indarrean dagoen legeriaren eta Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen diru-laguntzen Ordenantza Orokorren aurreikuspenen esparruaren barruan, baldintza hauek betetzen dituztenak: batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat etortzea; deialdian, hitzarmenean edo emakida-ebazpenean ezarritako epearen barruan egitea; beren eskuraketa-balioa merkatuko balioa baino handiagoa ez izatea; eta, deialdian, hitzarmenean edo ebazpenean espresuki kontrakoa xedatu ezean, justifikatzeko epea bukatu aurretik egiaz ordaintzea.

Bakar-bakarrik onartuko dira diru-laguntza eman edo hitzarmena onartutako urtearen barruan sortzen diren gastuak.

- Ez dira onartuko bazkarien, afarien edo ostalaritzako zerbitzuen gastuak, ez badute harreman zuzena elkartearen kultur-jarduera jakin batekin, eta gastua ez bada jardueraren partehartzaileek eragintakoa. Gastu horiek modu egokian justifikatu beharko dira jarduera-memorian, eta dagokien jarduerari zuzenean lotu.

- Legean aurreikusita dauden diruz lagundu daitezkeen gastuez gain, hauek ere lagundu daitezke diruz: finantza-gastuak, aholkularitza juridiko edo finantzarioko gastuak, notario- eta erregistro-gastuak, eta diruz lagundutako proiektua gauzatzeko adituen gastuak, eta administrazioko gastu espezifikoak, baldin eta diruz lagundutako jarduerarekin zuzenean lotuta badaude eta jarduera hori modu egokian prestatzeko edo gauzatzeko ezinbestekoak baldin badira.

Diru-laguntza jaso dezakeen gastuaren zenbatekoa handiagoa bada kontratu publikoen gaineko legerian kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak baino, pertsona onuradunak gutxienez hiru hornitzailearen eskaintzak eskatu beharko ditu. Hori ez da beharrezkoa izango baldin eta, diru-laguntza jaso dezaketen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ondasun edo zerbitzuok egin, eman edo hornitzen dituen hainbeste entitaterik ez badago, edo gastua diru-laguntza eskatu baino lehen egin bada. Alderdi horiek ziurtasun osoz justifikatu beharko dira.

Aurkeztutako eskaintzak aurkeztu behar dira edo justifikazioan edo, hala badagokio, diru-laguntzarako eskabidean. Proposamen ekonomikorik onena aukeratzen ez denean, espresuki justifikatu beharko dira, memoria baten bidez, erabili diren irizpideak.

Gutxienez hiru hornitzaileen eskaintzak aurkeztu ez badira edo aukeratu bada, behar bezala arrazoitu gabe, proposamen ekonomikorik onena ez baizik besteren bat, organo emaileak eskatu ahal izango du ondasun edo zerbitzuaren peritu-tasazio bat egin dadila,



TOLOSAKO
UDALA

2025DO200021

eta sortzen diren gastuak pertsona onuradunaren kontura izango dira. Kasu horretan, diru-laguntza kalkulatu da erreferentziatzen harturik bi balioetan txikiena dena: pertsona onuradunarena edo tasazioaren ondorioz ateratakoa

Seigarrena: Diru-laguntzaren justifikazioa.

Diru-laguntza emateko egintzan aurreikusitako baldintza eta helburuak betetzearen eta lortzearen justifikazioa egingo da DLOaren 31. artikuluan, DLOaren Araudian eta Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen diru-laguntzen Ordenantza Orokorren aurreikusita dagoenaren arabera. Dirulaguntza justifikatzeko «kontu erraztua» izeneko modalitatea erabiliko da.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa ondorengo hau izango da:

a) Jarduera-memoria bat dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direlako justifikatzeko, non adieraziko den zein jarduera egin diren eta zein emaitza lortu diren. Memorian berariaz jaso behar da dirulaguntzaren helburua bete dela, eta, hala badagokio, aurreikusitako helburuen aldean benetan lortutakoen ebaluazio bat Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legea bigarrenaz aldatzen duen martxoaren 3ko 1/2022 Legearen arabera, memoria sexuaren arabera bereizita aurkeztuko da emandako zerbitzuaren azken onuradunen edo erabiltzaileen, titularren eta langileen eta erakundeak dirulaguntza eskatu den zerbitzua emateko kontratatutako langileen informazioa.

b) Diru-sarreraren eta gastuen balantzea, non diruz lagundutako jardueraren edo proiektuaren gastu eta diru-sarrerak jasoko dituen. Tolosako Udalaren BAL izeneko dokumentua erabili behar da horretarako eta erakunde onuradunaren lehendakariak edo idazkariak sinatu behar du.

c) Gastuak eta inbertsioak sailkatzen dituen zerrenda bat, hartzekoduna eta dokumentua, data eta ordainketa datak adierazita. Tolosako udalaren GAS izeneko ereduak erabili behar da horretarako eta jatorrizko formatuan (xls) aurkeztu beharko da, inolako sinadurarik gabe. Dirulaguntza aurrekontu zenbatetsi baten arabera ematen denean, gastu eta inbertsoen zerrenda proiektuaren edo diruz lagundutako jardueraren partiden arabera ere sailkatuko da eta adieraziko da zein desbideratze izan diren.

Finantzaketa-iturri bat baino gehiago erabili direnean, Tolosako Udalak gastu horri dagokionez finantzatutako ehuneko aldakorra adieraziko da. GAS dokumentuko gastuen guztizkoak bat etorri beharko du BAL dokumentuko gastuen guztizkoarekin.

d) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste sarrera edo dirulaguntzen zehaztapen bat, non zenbatekoa eta jatorria adieraziko diren.

Aipatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren eta dagokion organoak dokumentazio gehigarria aurkezteko errekerimendua egin ondoren:

ESKU73d3481c-8d91-4f79-b676-6afc690a24e9



TOLOSAKO
UDALA

2025DO200021

Dirulaguntzaren zuriketa aurkezteko «kontu erraztua» izeneko modalitatea erabiliko denez, organo emaileak dirulaguntza egoki aplikatu dela egiaztatzeko arrazoizko ziurtasuna ematen duen ordainagirien lagin bat begiratuko du.

Horretarako, a), b), c) eta d) letretan aipatutako dokumentazioa aztertu ondoren, c) letrako gastuak eta inbertsioak sailkatzen dituen zerrendako zenbait gastu eta inbertsioren ondorengo dokumentazioa aurkezteko errekerimendua egingo da:

- fakturak eta merkataritzako trafiko juridikorako balioa edo eraginkortasun administratiboa duten gainerako agiriak
- eta agiri horien ordainketak egiaztatzen dituen dokumentazioa

Onuradunak 10 eguneko epea izango du aipatutako errekerimendua jakinarazten zaionetik dagokion dokumentazioa aurkez dezan.

Jatorrizko agiri horiek aurkeztuko dira zerrenda zenbakituan emandako hurrenkera-zenbakiaren arabera hurrenez hurren ordenatuta. PDF dokumentu bakarrean aurkeztu beharko dira faktura eta gastua ordaindu izanaren dokumentu guztiak.

Egiaztatu beharreko elementu-kopurua, ondoren adierazten diren mugak errespetatuta kalkulatu da:

- Emandako dirulaguntzaren zenbatekoaren %25a gainditzen duten egiaztagiri guztiak begiratuko dira.
- Gainerako egiaztagirietatik begiratuko da elementuen lagin bat, zeina gutxienez portzentaje hau den populazio osoaren elementu-kopuruarekiko:

a) Jarduera-memoria bat diru-laguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direlako justifikatzeko, non adieraziko den zein jarduera egin diren eta zein emaitza lortu diren.

b) Gastuak eta inbertsioak sailkatzen dituen zerrenda bat, hartzekoduna eta dokumentua, data eta ordainketa datak adierazita, Tolosako Udalak emandako ereduaren moduan justifikatuko dena. Diru-laguntza aurrekontu zenbatetsi baten arabera ematen denean, zein desbideratze izan diren adieraziko da.

c) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste sarrera edo diru-laguntzen zehaztapen bat, non zenbatekoa eta jatorria adieraziko diren.

d) Aplikatu ez diren soberakinak eta horietatik ateratzen diren interesak itzuli direla dioen ordainketa gutuna.

Organo emaileak diru-laguntza egoki aplikatu ote den egiaztatuko du horren gaineko arrazoizko ziurtasuna ematen duen ordainagirien lagin bat begiratuta. Dagokion deialdian, laguntza emateko-erabakian edo hitzar menean zehaztuko da zein den egiaztatu beharreko elementu-kopurua, ondoren adierazten diren mugak errespetatuta:

- Egiaztagiriak hamar edo hamar baino gutxiago badira: %100.

ESKU73d3481c-8d91-4f79-b676-6afc690a24e9

- Egiaztagiriak hamar baino gehiago eta hogeit hamar baino gutxiago badira: %70.
- Egiaztagiriak hogeit hamar baino gehiago eta berrogeit hamar baino gutxiago badira: %40.
- Egiaztagiriak berrogeit hamar baino gehiago eta ehun baino gutxiago badira: %30.
- Egiaztagiriak ehun baino gehiago badira: %20

Zazpigarrena: Diru-laguntzen justifikazioa aurkezteko epea

Diru-laguntzen justifikazioa aurkezteko epea izango da hilabete bat, jarduera gauzatzeko epea bukatzen denetik kontatuta, hau da, gehienez ere 2026ko urtarrilaren 31a

Zortzigarrena: Ordaintzeko prozedura.

Diru-laguntza osotasunean bi zatitan ordainduko da: lehena, diru-laguntzaren % 75, hitzarmena sinatzearekin batera eta Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela ziurtatzen duten agiriak aurkeztutakoan; eta gainontzeko % 25a, ordainketa egindako gastuaren justifikazioa ontzat ematen duen erabakiaren jakinarazpenarekin batera egingo da.

Organo eskudunak erabakitzen badu onuradunak aurrerakin gisa edo konturako ordainketa gisa jasotako zenbatekoa osorik edo partzialki itzuli behar duela, zenbateko hori itzuli beharko da.

Horri dagokionez, Tolosako Udalaren Dirulaguntza Orokorraren VI. Kapituluan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren II. Tituluan, haren Erregelamenduan (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua) eta indarrean dagoen gainerako araudian xedatutakoa aplikatuko da.

Betebeharreko baldintza izango da Tolosako Udalak aurretik emandako diru-laguntzen justifikazio dokumentazio osoa aurkeztu izana, beste diru-laguntza berri batean parte hartu ahal izateko.

Ordainketak Diru-laguntzen Datu Base Nazionalari jakinaraziko zaizkio ordaindu eta hurrengo hilabetea bukatu aurretik.

Bederatzigarrena: Diruz lagundutako jardueraren publizitatea.

Entitate onuradunak diruz lagundutako jardueren publikotasuna zabaltzeko neurriak, diruz lagundutako objektuarentzat egoki direnak, dela beren forman, dela beren iraupenean, nola baitira, esaterako, karteletan, plaka oroigarrietan, inprimatutako



TOLOSAKO
UDALA

2025DO200021

materialetan, baliabide elektroniko edo ikus-entzunezkoetan Tolosako udalaren irudi instituzionala edo beraren finantzaketa publikoari buruzko legendak sartzea, edo hedabideetan aipamenak egitea, eta hori dena beste finantzaketa-iturri batzuei emandako garrantzia berdinarekin.

Diru-laguntza jasotzen duen erakundeak konpromisoa hartzen du Tolosako Udalak beharrezkotzat eta interesgarritzat jotako gizarte-, hezkuntza-, kultura- eta jolas-ekitaldietara joan eta bertan parte hartzeko.

Hamargarrena: Euskararen erabilpena.

Erakunde onuradunak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan idatzi eta ezagutarazi beharko ditu —euskarari lehentasuna emanda— diruz lagundutako jardueran argitaratzen dituen idatzi, iragarki, ohar eta gainerako komunikazioak, eta publizitatearekin ere, ahozkoa zein idatzia izan, berdin jokatu beharko du. Halaber, ekitaldi zehatzetan megafoniaz igorritako mezuak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan transmititu beharko dira. Betebehar hori bete izana diruz lagundutako jarduera egin dela justifikatzerakoan egiaztatu beharko da.

Hizkuntza-normalizaziorako helburuei jarraikiz, euskara sustatzeko irizpideak jarriko ditu Udalak, eta haiek bete beharko ditu onuradunak diruz lagundutako jarduera gauzatzean. Irizpideak zehazteko oinarri hartuko diren printzipioak azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuan zehaztutakoak dira, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboari buruzkoan zehaztutakoak, hain zuzen.».

Hamaikagarrena: Genero berdintasuna.

Honako hauek ezin izango dute parte hartu eta pertsona edo entitate onuradunaren izaeratik kanpo geratuko dira:

1. Xedeak edo helburuak, kideak onartzeko edo sartzeko sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduna, antolamendua edo estatutuak direla-eta, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa urratzen duten pertsona fisikoak edo juridikoak.
2. 2. Administrazio-, lan- edo zigor-bidez irmoki zehatuak izan diren pertsona fisikoak eta juridikoak, sexu-arrazoiak direla eta berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren eskubidea urratu izanagatik.
3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako ezarritako betekizunak betetzen ez dituzten entitateak edo enpresak.
- 4.- Ez dira diruz lagunduko, ezta ere, sexuagatiko edo diskriminazio anitzeko faktoreengatiko bereizkeria eragiten duten jarduerak, emakume edo emakume-

ESKU73d3481c-8d91-4f79-b676-6afc690a24e9



TOLOSAKO
UDALA

2025DO200021

taldeenak, baldin eta diskriminazio egoerak eragin ditzaketen beste faktore batzuk badaude, hala nola: arraza, kolorea, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, politikari edo bestelako gaiei buruzko iritziak, gutxiengo nazional bateko kide izatea, ondarea, jaioterria, desgaitasuna, adina, sexu-orientazioa, genero-identitatea, genero adierazpena, migrazio-prozesua, errefuxiatu-estatusa, kultura, landa-jatorria, gizarte-bazterketako egoera, seropositibotasun-egoera, guraso bakarreko familia, familia-konfigurazioa edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal, sozial edo administratiboa.

Debekua ezartzen da, xedapen hauekin bat etorrira: Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 4, 3.1 eta 24.2 artikuluetakoa; Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13.3 artikulua; 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.5 artikulua, eta Elkarteko Eskubidea Arautzeko martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikulua.

Hamabigarrena: Jarraipen batzordea.

Hitzarmen honen testuinguruan, bi aldeek adostu dute Hitzarmen honen jarraipena egiteko batzorde bat eratzea. Batzorde horren funtzioak hauek izango dira: hitzarmena ongi betetzen dela zaintzea, sor daitezkeen zalantzak argiturik; diru-laguntza jaso duten jarduera guztien memoria eta ustiapen-kontua adostea; hitzarmena betetzen ote den eta zein neurritan betetzen den aztertzea; eta bi aldeen interesekoak izan daitezkeen lankidetzak bide berriak proposatzea.

Batzorde hau elkarteko bi ordezkari eta Tolosako udaleko kultur zinegotziak eta kultur teknikarietako batek osatuko dute

Tolosako Udalak egoki irizten dituen ikuskerak eta ziurtapenak egiteko ahalmena du, diruz lagundutako elkarteak hartutako konpromisoak betetzen dituela egiaztatzeko helburuarekin.

Hamahirugarrena: Iraungitzea.

Hitzarmen hau iraungiko da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 51. artikuluan zehaztutako kasuetan.

Hamalagarrena: Lan eta zerga legeria.

Diruz lagundutako elkarteak bete beharko du, bere jardura gauzatzean, indarrean dagoen legedian ezarritakoa, bereziki zergei, lan-harremanei, Gizarte Segurantzari edo horren aplikaziotik eratortzen den guztiari dagokienean.

Hamabosgarrena: Izaera administratiboa.

ESKU73d3481c-8d91-4f79-b676-6afc690a24e9

Hitzarmen honek izaera administratiboa du. Beraz, bere klausulek eta bere kasuan aplikatzekoa den legediak arautzen dute.

Hamaseigarrena: Erantzukizunpeko adierazpena.

Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen diru-laguntzen Ordenantza Orokorren 10.11. artikuluan xedatutakoaren arabera, DLOren 13.2 artikuluan ezarritako onuradun izateko debekuetan erortzen ez delako egiaztapena egingo da notario baten edo funtzionario publiko baten aurreko erantzukizunpeko adierazpen baten bidez.

Hamazazpigarrena: Gainerako legeria.

Hitzarmen honetan araututa ez dagoenean, bete beharko da honako lege-arau hauetan xedatutakoa: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena;

38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa eta berau garatzeko Erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa; eta Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen diru-laguntzen Ordenantza Orokorra.

Hemezortzigarrena: Izaera pertsonaleko datuak.

Izaera pertsonaleko datuak arautzen duen legeriak agintzen duenari jarraituta, bi aldeek konpromiso hartzen dute indarrean dagoen legerian xedatutakoa, aplika daitekeen guztian, beteko dutela.

Hemeretzigarrena: Dokumentuen kontsulta eta elkarreragingarritasuna.

39/2015 Legearen 28.artikuluan, 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1.artikuluan eta 38/ 2003 Legearen 14.artikuluan ezarritakoari jarraiki, Tolosako Udalak informazioa kontsultatuko du zuzenean bere datu baseetan eta, interesdunak horren aurka egiten ez badu, NISAE elkarreragingarritasun nodoaren bidez Gipuzkoako Foru Ogasunean eta Gizarte Segurantzako Diruzaintzan, laguntza lortzeko baldintzak betetzen diren egiaztatzeko behar diren datuak eta, bereziki, honako hauek: Foru Ogasunaren zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzakoetan egunean izatea, eta enpresaren datuak.

Hogeigarrena: Gardentasun Ataria.

Hitzarmenaren testua argitaratuko da Gardentasun atarian eta Udaletxeko Iragarki taulan.

Goiuri Eceiza Arandia

Iker Galartza Larrinaga



2025DO200021

Nire Aurrean
Sara Berasategui Fuertes
Udal Idazkaria

